

2005eko Memoria Donostia Kultura

San Telmo Museoa Museo San Telmo

Kultur Eltxeak Centros Culturales

Liburutegiak Bibliotecas

Musika Música

Ilustrabook Cursillos

Erakusketak Exposiciones

Antzerki Feria Feria de Teatro

Beldurrezko Astea Semana de Terror

Zinema Cine

Dantza Danza

Antzerkia Teatro

Literatura Literatura



Donostia Urdia
Ayuntamiento de San Sebastián





- 3 Balantze ekonomikoa eta diru-laguntzak**
- 4 Komunikazioa eta irudia**
Tel.: 943 481152
- 5-8 Liburutegi-zerbitzua**
Liburutegi Nagusia
Alderdi Eder: Tel.: 943 481486 Faxa: 943 481490
Liburutegi Nagusiko Haur Saila
Fermin Kalbeton 25, Tel. 943 481999 Faxa: 943 481195
- 9-10 Kultur Ekintzako Zerbitzua**
- 11 Egia Kultur Etxea**
Baztan, 21: Tel.: 943 291514 Faxa: 943 287219
- 12 Loiola Kultur Etxea**
Aralar, 17: Tel.: 943 454605 Faxa: 943 473498
- 13 Casares Kultur Etxea**
Darieta bidea, 1 (Altza): Tel.: 943 351149 Faxa: 943 354046
- 14 Altza Kultur Etxea**
Larratxo pasealekua, 55: Tel.: 943 396494 Faxa: 943 354046
- 15 Ernest Lluch Kultur Etxea (Amara)**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara) Tel.: 943 481919
- 16 Okendo Kultur Etxea**
Nafarroa Etorbidea, 7 Tel: 943 290672 Faxa: 943 290721
- 17 Lugaritz Kultur Etxea**
Heriz, 20 (Antiguo): Tel.: 943 310780 Faxa: 943 310782
- 18 Larrotxene Kultur Etxea**
Intxaurrenondo, 57 (Intxaurrenondo): Tel.: 943 291954 Faxa: 943 292746
- 19 Intxaurrenondo Berri Kultur Etxea**
Gaztela, 2: Tel.: 943 279343 Faxa: 943 275241
- 20 Arte Eszenikoak eta Musika**
- 21 Antzoki Zaharra**
Nagusia, 3: Tel.: 943 481966 Faxa: 943 481969
- 22-23 Donostiako Antzerki Feria**
Tel.: 943 481966 Faxa: 943 481969
- 24 Zinema eta Bideoa**
Tel.: 943 481157
- 25 Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XVI. Astea**
Tel.: 943 481183
- 26 Aldi baterako erakusketak**
- 27 San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza Tel.: 943 481580

Balantze Ekonomikoa



SARRERAK	12.455.347,21 €
Udalaren ekarpena	10.844.018,42 €
Foru Aldundiaren dirulaguntza	159.000,00 €
Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	219.082,50 €
Beste hainbat dirulaguntza	128.976,20 €
Kultura Ministerioa	39.000 €
Babesleak	75.280,12 €
Jardueren sarrerak	526.792,79 €
Alokairuak	273.910,89 €
Argitalpenak	33.886,78 €
Beste hainbat	155.399,51 €

GASTUAK	12.455.347,21 €
Langileen gastuak	6.183.359,42 €
Konponketak eta mantentze-lanak	373.701,97 €
Bulegoko materiala	168.836,24 €
Hornikuntzak eta komunikazioak	658.397,39 €
Aseguruen primak	91.482,64 €
Zergak	27.287,72 €
Enpresa gehiagoren jarduerak eta jardunak	3.475.594,67 €
Publizitatea eta propaganda	553.989,55 €
Dirulaguntzak	192.293,61 €
Inbertsioak	730.404,00 €



Donostia Kulturak Emandako Diru-laguntzak



6 Dirulaguntza hitzarmen bidez
24.761,00 €

11 Dirulaguntza zuzenak
55.094,76 €

Dirulaguntza berezia (Periferike Elkartea)
6.000,00 €

54 Dirulaguntza Kultur Jardueretarako Elkarteei
64.962,00 €

Musika eta Dantza Eskolarekiko Hitzarmena
41.475,85 €

GUZTIRA
192.293,61 €



Komunikazioa eta Irudia



2005. urtean, Donostia hirian garatu den kultur jardueraren protagonista nagusienetakoa izan da DONOSTIA KULTURA, eta honako baliabideak erabili ditu bere programazioa ezagutzera emateko:

Promozioko eta programak (kartelak, gonbidapenak eta abar): 250

Idatzizko prentsan jarritako iragarkiak: 350

Saio txikiak irrati-tan: 80

Saioak tokiko telebistetan: 320

DONOSTIA KULTURAK 2005. urtean kaleratu dituen argitalpenen artean, azpimarragarriak dira: arte-katalogo bat ("Eduardo Chillida Belzunce, 'Etxean- En casa'"), musika-gida bat, aurten musika klasikoari eskainia, Nosferatu argitalpenak ("Cine Francés 1945-1959" eta "El Quijote en el cine"), Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Astea dela-eta eginiko argitalpenak ("Cine español fantástico y de terror: 1984-2004", "Las joyas de la familia" deritzan Pedro Usabiagaren argazki-katalogoa eta "2000 Maníacos" eta "Flash-Back" fanzineak), eta azkenik, musikaren atalean, Elektronikaldia 2005en ohiko erreperitorioa.



Altzako Irrati Tailerra


Frekuentzia: 107.4 FM

2005. urtean tailerlean parte hartu duen pertsona-kopurua: 49

Egunean emitituriko ordu-kopurua: 24



Donostia Kultura Txartela



Aurten, Donostia Kulturaren bazkide-kopuruak nabarmen egin du gora berriz ere, eta 2003an erregistraturikoak bikoiztera iritsi da. Honela, 35.000 pertsona dira, dagoeneko, eskaintzen ditugun zerbitzuen eta abantailen onuradun: beharpenak ikus-kizunetan, doako maileguak liburutegietan, sarreraren zozketak, hileko agendaren bidalketa eta abar. Gainera, lankidetzak

handitu, eta hiriko beste zenbait kultur erakunderekin ere ezarri dugu (Zinemaldia, Jazz Jaialdia, Musika Hamabostaldia, EHUko udako ikastaroak, Zientziaren Kutxagunea). Honek handitu egin ditu gure bazkide-txartelen erabiltzaile direnen abantailak. Txartel horiek honakoak dira: Donostia Kultura eta Kutxa Donostia Kultura.

Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Liburutegi-kopurua: 15

Bilduma modernoko fondoak	242.743
Altak	32.093
Bajak	11.959
Bildumaren hazkundearen %	9,04%
Bilduma berritzearen %	13,22%
Bilduma historikoko fondoak	65.000

Erabilera publikorako ordenagailuak	241
Internet / CD-ROMetarako ordenagailuak	215
OPAC	26

OPAC kontsultak	466.678
WEB kontsultak	5.066

Liburutegi Zerbitzuko Bazkideak	71.207
2005. urteko bazkide berriak	7.414

Liburutegietara egindako bisitaldiak	951.432
Eguneko bisitaldien batezb.	3.561

Maileguak	477.818
Eguneko maileguen batezb.	1.804

Internet/CD-ROM bidezko kontsultak	113.545
Aretoetan	28.176
e-Donostia aretoetan	5.239
KZgunean	80.130

Jarduera-kopurua	
Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak	642



Aurten, azpimarratzekoa da Interneten oinarrituriko zerbitzu berrien finkatzea: berrikuntzak, bazkideen kontsultak, galde-eskeak..., guztiak ere OPAC bidez (Librivation) eta liburutegi-zerbitzuko web-orriaren bidez eginikoak (www.bibliotecaspiblicas.es/donostia). Web-orri hau Kultura Misterioarekiko lankidetzari esker gauzatu ahal izan da, eta Liburutegiko langileek mantentzen dute egunero.

Aurtengo errendimenduari dagokionez, zifrek hazkunde txiki bat islatzen dute maileguen eta bisiten datuetan. Berrikuntza bat: OPAC bidezko kontsultak eta web-orriaren kontsultak egin dira aurten.

Berrikuntza gehiago: bi liburutegi berrik osatzen dute orain gure sarea. San Telmo Museoa Liburutegia dago batetik. Liburutegi honi dagokionez, fondo bibliografikoaren datuak emango ditugu. Beste museoa, berriz, Kristina Enea da. Museo hau Donostiaren Ingurumen Baliabideen Zentroa da. Udal erakunde hau Udalaren Osasun, Ingurumen eta Kontsumo Zerbitzuaren mendeko da. Honekin ere lankidetzaren hitzarmena sinatu dugu. Liburutegi honek ingurumenari dagozkion fondoak ditu, eta 2006. urtean zabaltzea aurreikusten da. Gainera, beste erakunde batzuekin eginiko lankidetzaren proiektuak nabarmenduko genituzke. Besteak beste:

- Mandasko Dukearen Fondoak katalogatzea, Ondare

Bibliografikoaren katalogo kolektiboaren baitan, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

- Eskola-liburutegien proiektua sendotzea, Arantzazuko Ama Ikastolako (Martutene) liburutegia abian jarritz.

- Liburutegiak aztertzeo programa amaitzea (LAP). Proiektu honi 2005. urtean eman genion hasiera Bertelsmann Fundazioarekin batera. Metodologia gure urteko memorietan sartu dugu. Fundazioarekin lanean jarraitzen dugu e-learning-en esparruan.

- XIX. mendeko donostiar prentsaren digitalizazioa, 2004 urtean hasitako proiektua, amaitu egin da, eta 2006. urtean zehar kontsulta-interfazea landuko dugu Intranetean.

- Kixoteren mendeurrena dela-eta, orrialdeak markatzekoa eginarazi diogu Xabier Egañari, hain zuzen ere, Kixoteren euskarazko bertsioa irudiztatu duenari.

Azkenik, irakurketa sustatzeko eta zabaltzeko ahalegin handia egin dugu, nazioartean sona handia duten hainbat idazle ekarriz: Henning Mankell, Michael Cunningham eta Olivier Rolin. Euskadiko Editoreen Elkartearekin, Bilboko Institutu Frantsesarekin eta abarrekin eginiko lankidetzari esker gauzatu ahal izan da aipaturikoa.


Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Liburutegi Nagusia- Alderdi Eder

Fondo historikoa	65.000
Fondoak	42.892
Bazkide berriak	1.801
Bisitariak	282.234
Eguneko bisiten batezb.	935
Maileguak	117.752
Eguneko maileguen batezb.	390
Internet/cd-rom/Wi-fi bidezko kontsultak	18.895
Wi-fi-n izen emandakoak	168
Fondo historikoan egindako kontsultak	1.394
Prentsa historikoan egindako kontsultak	1.130
Ikus-entzunezkoen kontsultak	1.125
Jarduera-kopurua	130
Parte-hartzaileak	37.044
Liburuxkak, gidak	88



Liburutegi Nagusiko Haur Saila

Fondoak	24.934
Bazkide berriak	394
Bisitariak	34.732
Eguneko bisiten batezb.	124
Maileguak	25.257
Eguneko maileguen batezb.	90
Internet/cd rom bidezko kontsultak	3.475
Jarduera-kopurua	75
Parte-hartzaileak	1.250
Liburuxkak, gidak	45



Alta Kultur Etxeko Liburutegia (Larratxo)

Fondoak	8.958
Bazkide berriak	168
Bisitariak	19.406
Eguneko bisiten batezb.	87
Maileguak	13.597
Eguneko maileguen batezb.	61
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	2.033
Jarduera-kopurua	21
Parte-hartzaileak	301
Liburuxkak, gidak	33



Casares Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)

Fondoak	16.489
Bazkide berriak	295
Bisitariak	27.105
Eguneko bisiten batezb.	122
Maileguak	18.952
Eguneko maileguen batezb.	85
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	7.897
Jarduera-kopurua	23
Parte-hartzaileak	463
Liburuxkak, gidak	28

Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Egia Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	21.832
Bazkide berriak	317
Bisitariak	45.729
Eguneko bisiten batezb.	212
Maileguak	32.040
Eguneko maileguen batezb.	148
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	7.897
Jarduera-kopurua	51
Parte-hartzaileak	992
Liburuxkak, gidak	77

Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	22.014
Bazkide berriak	1.307
Bisitariak	164.738
Eguneko bisiten batezb.	545
Maileguak	75.782
Eguneko maileguen batezb.	251
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	26.501
Jarduera-kopurua	48
Parte-hartzaileak	937
Liburuxkak, gidak	937

Intxaurrondo Berri Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	17.732
Bazkide berriak	413
Bisitariak	57.984
Eguneko bisiten batezb.	260
Maileguak	39.523
Eguneko maileguen batezb.	177
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	3.014
Jarduera-kopurua	26
Parte-hartzaileak	600
Liburuxkak, gidak	30

Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurrondo)

Fondoak	10.760
Bazkide berriak	150
Bisitariak	17.802
Eguneko bisiten batezb.	80
Maileguak	12.456
Eguneko maileguen batezb.	56
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	2.729
Jarduera-kopurua	31
Parte-hartzaileak	494
Liburuxkak, gidak	12

Loiola Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	18.569
Bazkide berriak	236
Bisitariak	39.071
Eguneko bisiten batezb.	175
Maileguak	17.696
Eguneko maileguen batezb.	79
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	3.827
Jarduera-kopurua	38
Parte-hartzaileak	594
Liburuxkak, gidak	66



Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antiguo)

Fondoak	20.683
Bazkide berriak	699
Bisitariak	41.414
Eguneko bisiten batezb.	186
Maileguak	28.959
Eguneko maileguen batezb.	130
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	7.365
Jarduera-kopurua	30
Parte-hartzaileak	926
Liburuxkak, gidak	106

Okendo Kultur Etxeko Liburutegia (Gros)

Fondoak	21.968
Bazkide berriak	1.408
Bisitariak	164.354
Eguneko bisiten batezb.	544
Maileguak	83.484
Eguneko maileguen batezb.	276
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	28.928
Jarduera-kopurua	117
Parte-hartzaileak	1.634
Liburuxkak, gidak	87

Urgull Mendiko Udako Liburutegia

Fondoak	4.518
Bazkide berriak	34
Bisitariak	3.493
Eguneko bisiten batezb.	45
Maileguak	324
Eguneko maileguen batezb.	4
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	409
Jarduera-kopurua	22
Parte-hartzaileak	477
Liburuxkak, gidak	0

Udal Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia

Fondoak	5.958
Bazkide berriak	192
Bisitariak	53.370
Eguneko bisiten batezb.	246
Maileguak	12.223
Eguneko maileguen batezb.	56
Internet/cd-rom bidezko kontsultak	575
Jarduera-kopurua	0
Parte-hartzaileak	0
Liburuxkak, gidak	5


San Telmo Museoko Liburutegia

Fondoak	5.174
---------	-------

Kristina Enea Liburutegia

(2006an irekitzea aurreikusten da)

2005ean katalogatutako fondoak	262
--------------------------------	-----



Kultur Ekintzako Zerbitzua

(Kultur Etxeen Sarea)



Gogora dezagun Kultur Ekintzako Zerbitzuaren helburu nagusia hiritar guztiari kultur zerbitzuen eta jardueren aukera zabala eskaintzea dela, kultur ekipamendurako sare baten eta esku-hartzerako hainbat programaren bidez, eta sare hori osatzen duten kultur ekipamenduak honakoak direla:

Casares eta Altza Kultur Etxeak (Altzan)
Okendo Kultur Etxea (Grosen)
Larrotxene eta Intxaurren Berri Kultur Etxeak (Intxaurren)
Loiola Kultur Etxea (Loiolan)
Lugaritz Kultur Etxea (Antiguon)
Egia Kultur Etxea (Egian)
Ernest Lluch Kultur Etxea (Amaran)

Hona hemen 2005. urtean kultur etxe hauetan eskaini diren jardueren eta jardura horien erabiltzaileen datuak:

JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	231	32.116
Musika	120	20.694
Dantza	29	8.652
Zinema	96	20.004
Bideoa	104	5.008
Erakusketak	71	61.057
Liburutegiko jarduerak	460	6.614
Hitzaldiak	120	4.927
Elkarteen bilerak eta jarduerak	1.352	27.304
Alokairuak eta beste	313	24.474
GUZTIRA	2.896	210.850

ZERBITZUAK ¹	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	577.603
Ikasteko gela	7.733
Musikagela	4.182
Haurtxoko	14.541
Gazteleku	27.586
Plus 55	7.296
E-Donostia (Internetarako sarbidea) ²	5.239
KZgunea (Internetarako sarbidea) ³	64.417
GUZTIRA	708.419

PRESTAKUNTZA	Ikastaro-kop.	Erabiltzaileak
Neguko ikastaroak ⁴	365	6.217
Udako ikastaroak	6	86
KZgunea ikastaroak	226	1.709
E-Donostia ikastaroak	106	1.010
GUZTIRA	703	9.022

GUZTIRA 2005 928.291

¹ Espezializazioei dagozkien zerbitzuak (irratia, bideoa...) Kultur Etxe bakoitzaren atalean aipatzen dira.

² Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan kudeatua. Ernest Lluch, Egia, Casares eta Lugaritz Kultur Etxeetan.

³ Udal Sustapen Elkartearekin lankidetzan kudeatua. Loiola eta Larrotxene Kultur Etxeetan.

⁴ Astearen behin, urritik ekainera. Aurreko urtean ez bezala, Haurtxoko eta Gazteleku tailerrak ez dira atal honetan jasotzen, bakoitzari dagokien atalean baizik, hurrenez hurren.



Kultur Ekintzako Zerbitzua

(Kultur Etxeen Sarea)

Programazioari dagokionez, beraien izaera eta garrantziagatik, honako jarduerak aipatuko ditugu: Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdia, Kaleko Zinemaren Jaialdia, Kaleko Antzerkiaren Jaialdia, antzerki-, musika- eta dantza-programazio egonkorra Egia eta Lugaritz Kultur Etxeetan (helduentzat, gazteentzat zein haurrentzat), Bideoaldia, Abesbatzen Astea, Literaktum eta abar. Hortaz, donostiarren eskaerak eta kezak betetzera bideratutako jarduera-sorta handia eskaini da.

Kultur Ekintzako Zerbitzutik, lurraldearen esparruan esku hartzeaz gain, helburutzat dugu populazioaren sektore ezberdinei ere arreta eskaintzea. Lanerako ildo honen bidez, populazioko sektore jakinetara bideratutako kultur zerbitzu eta jarduerak proposatzen eta eskaintzen ditugu. Eskaintza hori, gainera, sektore jakin horren behar berezietara egokitzen da.

Helburu honekin eta Udalaren esparruko arlo jakinen lankidetzarekin, honako sektore-zerbitzuak sartu ditugu azken urteetan Kultur Etxeetan :



HAURTOKO

Haurtxoko deritzan zerbitzua Ernest Lluch eta Okendo Kultur Etxeetan garatzen da. Zerbitzu honek ezarpen eta berme maila handia lortu du Amara eta Gros auzoetan. Abian jarri zenetik igaro den denboran,

zerbitzu hau aisialdi hezigarri eta sortzailearen erreferente garbia bilakatu da auzo bakoitzeko neska-mutilentzat.



GAZTELEKU

Ernest Lluch, Egia eta Okendo Gaztelekuek ezarpen maila ona lortu dute Amara, Egia eta Gros auzoetan. Aurten, bidean aurrera egin da; batetik, zerbitzu hauek hedatzeko oinarriak finkatzeko, eta bestetik, zerbitzu hau

egungo gazteriaren errealitate aldakorretik sorturiko erronketara hobeto egokitzeko proposamen teknikoak garatzeko.

MUSIKAGELA

Zerbitzu hau Egia Kultur Etxean ematen da, eta hiriko musika-taldeei entsegu-aretoa aldi baterako uztean datza (gehienbat gazteei). Zerbitzu hau zazpi entsegu-gelak, DJentzako tailer batek eta musika-instrumentuak gordetzeko biltegi batek osatzen dute.

2004. urteko lehen urratsen ondoren, 2005. urtean finkatu egin da zerbitzua. Izan ere, irekirik izan da urte osoan zehar. Erabiltzaileen kopurua, gainera, egonkortu egin da, helburutzat jarritako erabiltzaile-batezbestekoa bera ere gaindituz.



PLUS 55

55 urtetik gorakoei zuzenduriko aisialdirako eta astialdirako programa hau hiriko kultur etxeetan eskaintzen da, eta Gizarte Ongizatearen arloak eta Donostia Kulturak sustaturikoa da.

Talde honetako boluntarioek bultzatutako eta jorratutako egitasmoei eta ekimenei sostengua ematea da zerbitzu honen helburua, baita Kultur Etxeak 55 urte baino gehiago duten pertsonentzako sozializazio-, jarduera-, eta zerbitzu-gune bilakatzea ere.

Programa hau arrastaz aritu da 2005. urtean zehar. Plus 55 delakoak, gainera, Ernest Lluch Kultur Etxetik Okendo, Casares eta Lugaritz Kultur Etxeetara hedatu du bere jarduna.

Informazioaren eta hedapenaren esparruetan, berriz, areagotu egin dira kontsultak. Jarduerari dagokionez, honakoak nabarmentzen dira: Larunbatak dantzan (dantzaldiak zuzeneko musikarekin), Ibilaldiak Donostian (paseoak hirian barrena helburu jakin batekin), Gimnasia Hondartzan eta Kontarte (arteari buruzko zikloak). PLUS 55 delakoak kolektibo babesgabeak sartu ditu proposaturiko jardura batzuetan, hala nola adineko pertsona itsuak eta baliabide gerontologikoen erabiltzaileak.

Sektore-zerbitzuen jarduera eta partaide-kopurua honakoa izan da¹:

SEKTORE ZERBITZUAK	Jarduerak	Partaideak
Haurtxoko	161	5.374
Gazteleku	131	3.280
Plus 55	170	7.296
Musikagela	(grupos) 34	4.182

Orain arte aipaturikoaz gain, Kultur Ekintzako Zerbitzuak, arloekiko eta kasu bakoitzean zegoen erakundeekiko lankidetzan, populazio-sektore jakinei bideratutako jarduerak diseinatu eta prestatu ditu Kultur Etxe guztietan. Programa horietako batzuen adibide dira, esaterako: Gaztemaniak!, Donostia Mundu Artean, Gabonak Zuretzat, Irudi Biziak, Ikasgelak, Larunbatak Dantzan, Literatur Zita, emakume-asteak eta abar.

Kultur etxerik ez den inguruetan, lankidetzak-hitzarmenak sinatu ditugu bertako elkarte adierazgarriekin, kultur programak eta jarduerak garatu ahal izateko. 2005. urtean, ondoko erakundeekin sinatu ditugu hitzarmenak:

- Igeldoko Herri Kontseilua (Igeldo)
- Etxadi Kultur eta Kirol Elkarte eta Lantxabe Elkarte (Aiete)
- Añorga Kultur eta Kirol Elkarte (Añorga)
- Mundo Nuevo Elkarte (Amara Zaharra)
- Zubietako Herri Batzarra (Zubietako)

¹ Bisitari-kopurua kultur etxe bakoitzaren datuetan ageri da.




JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	61	9.854
Dantza	21	3.344
Zinema	3	875
Bideoa	9	495
Musika	27	6.719
Hitzaldiak	8	226
Ikastaroak eta tailerrak	96	1.240
Erakusketak	8	6.793
Elkarteen bilerak eta jarduerak	98	1.224
Alokairuak eta beste	96	6.496
Liburutegiko jarduerak	11	947
GUZTIRA	428	38.213

SERVICIOS

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	45.729
Gazteleku	7.992
Ikasteko gela	5.401
Musikagela	4.182
KZgunea	5.130
GUZTIRA	68.636



2005. urtea jardun handiko urtea izan da Egia Kultur Etxearentzat. Alde batetik, Gazteszenan, eszena-arteetarako (antzerkia, musika eta dantza) ezinbesteko erreferentzia-gunean, estilo ezberdin eta berritzaile ugariko ehun emanaldi baino gehiago eskaini ditugu, eta programazio interesgarria osatu dute hauek guztiak.

Bestalde, Dantza (dantza-sentsibilizaziorako zerbitzua), Musikagela (musika-taldeei entsegu-aretoak uzteko zerbitzua) eta AET (Arte Eszenikoen Tailerra) zerbitzuak sorkuntzarako eta prestakuntzarako guneak dira. Zerbitzu hauek, jada aipatu dugun programazioarekin batera, publiko gazteari zuzenduriko berritasun- eta ikerketa-apustu interesgarria osatzen dute, eta Donostia Kulturako arte eszenikoen proiektu osoko oinarria dira.

Liburutegiak, ikasteko gelak zein Kultur Etxean edo Egia auzoko gune ezberdinetan eginiko ikastaro eta tailer ugariek, erakusketek nahiz jarduerak parte-hartze handia izan dute.

Aurtengoan, gainera, instalazioak hobetzeko hainbat lan burutu ditugu. Eragozpenak sortu ahal izan badituzte ere, ziur gaude aurrerapausoa izan direla Kultur Etxeko guneak egokitzeko eta optimizatzeko ez ezik gune berriak sortzeko ere, hala nola Gaztelekua. Inolako zalantzarik gabe, erreforma honen bidez, modu egokiagoan erantzun ahal izango diegu behar berriei.





JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	13	1.732
Dantza	2	2.200
Zinema	3	600
Bideoa	5	125
Musika	12	1.455
Hitzaldiak	16	703
Ikastaroak eta tailerrak	89	1.181
Erakusketak	12	17.780
Elkarteen bilerak eta jarduerak	70	2.451
Alokairuak eta beste	14	3.252
Liburutegiko jarduerak	38	594
GUZTIRA	274	32.073

ZERBITZUAK

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	39.071
E-Donostia	3.827
GUZTIRA	42.898



Aurki Kultur Etxean gauzatuko diren lanak kontuan hartuz, aurtengoa trantsizio-garaia izan da Loiolako gure Kultur Etxerako.

Dena dela, Kultur Etxe honetan jada ohikoak diren jarduerak egin dira, hala nola, Mikologia Astea, Literaktum, Folklorearen Jaialdia edo Emakumearen Astea. Nabarmentzekoa da jarduerara hauekariko asko adin-nagusitasunera heldu direla dagoeneko, eta errotze maila handia lortu dutela.



Eskaintzen ditugun zerbitzuen artean, aipatzekoa da E-donostia. net teknologia berrien udal ekipamendua finkatu egin dela. Teknologia berri hau urtarilean jarri zen abian Kultur Etxean, eta orduz geroztik, prestakuntza-ikastaroak eskaintzen ditu bate-tik (hamabost terminal) eta nabigatzeko aukera bestetik (hamar terminal). Esperientzia oso arrakastatsua izan da, eta okupazio maila ia guztizkoa izan da, bai ikastaroetan eta bai nabigazio-aretoaren erabileran ere.

Zerbitzu berri honen eraginez, Kultur Etxeko ataria erabili behar izan dugu erakusketak jartzeko. Izan ere, ia hilero izan da ikusgai erakusketaren bat.





JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	7	1.107
Dantza	0	0
Zinema	4	1.456
Bideoa	1	15
Musika	4	398
Hitzaldiak	5	163
Ikastaroak eta tailerrak	80	735
Erakusketak	1	690
Elkarteen bilerak eta jarduerak	55	721
Alokairuak eta beste	52	2.217
Liburutegiko jarduerak	23	463
GUZTIRA	232	7.965

ZERBITZUAK	Kop.	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak		27.105
KZgunea (Internetarako sarbidea)		6.026
GUZTIRA		33.758

IRRATIA

Sortutako programak	46
Eginiko elkarrizketak	523
Irrati Tailerreko erabiltzaileak	49



2005. urtea, Casares Kultur Etxearentzat, bere espezializazioa, hots, irratia, indartzeko urtea izan da. Batetik, datozen urteetan gauzatu nahi dugun irratia-proiektu berriaren oinarriak finkatu dira. Bestetik, Casares Irratiak egiteko garrantzitsua izan du "Literaktum" jaialdian. Gainera, irratsaioak sortu ditu, eta kulturaren esparruko hainbat pertsona ezagunek hartu du parte horietan, hala nola Ainhoa Artetak, Iñaki Perurenak, Harkaitz Canok, Ane Gabarainek... Literatur Sorkuntza Tailerreko ikasleek ere beren literatur testuak eskaini dituzte.

Ohikoa denez, Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdiak, Abesbatzen Asteak, Kaleko Zinema eta Antzerki Jaialdiek eta abarrek zein ikastaro eta tailerrek onarpen handia izan dute.

Tokiko Historiaren Bilduma aurki argitaratuko den "Altza Hautsa Kenduz VIII" liburuaren prestakuntza-lanetan aritu da, eta aldi berean, Altzari buruzko dokumentu historikoen fondoa handituz joan da.

KZguneak erreferente garrantzitsu izaten jarraitzen du, teknologia berrien inguruko prestakuntzari dagokionez. Era berean, eskaera handiko nabigazio-zerbitzua eskaintzen du.

Aipatzekoak dira, halaber, Tomasene baserrian ekipamendu berria sortzeko eginiko lanak ere. Lan hauek baserriko ekipamendua osatzea izan dute helburu. 2006. urte hasieran irekiko den ekipamendu berri honetan, ekitaldietarako areto berri bat eta gune eta zerbitzu berriak izango dituen liburutegi bat kokatuko dira. Horri guztiari esker, kultur programak eta zerbitzuak hobeto egokitu ahal izango dira Altzako beharretara.





JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	14	2.241
Dantza	5	869
Zinema	0	0
Bideoa	1	160
Musika	10	1.981
Hitzaldiak	3	304
Ikastaroak eta tailerrak	12	188
Erakusketak	1	600
Elkarteen bilerak eta jarduerak	192	4.814
Alokairuak eta beste	5	389
Liburutegiko jarduerak	20	286
GUZTIRA	263	11.832

ZERBITZUAK	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	19.406
Plus 55	2.108
GUZTIRA	21.514

Eszena-ekipamendua hobetzeko lanei esker, antzerki-programaziorako ildo berria jarri da abian helduentzat. Honen bidez, Kultur Etxera joateko ohitura gutxiago duten sektoreenganaino iritsi ahal izan da. "En grilletes" eta "Divinas" izan dira aldi berri honetan aurkeztutako lehen antzezlanak.

Era berean, haurren antzerkiak izan duen onarpen maila ona azpimarratu behar da. Kultur Etxeko programarik sendoenetako bat da hau, zalantzarik gabe; "Xomorroak" antzezlan edo Txotxongiloen Jaialdia eskaini ditu, besteren artean.

Musikaren atalean, 2005. urtean sendotu egin dira Kultur Etxean egiten diren jaialdiak: Hard-Core Jaialdia (Etengabeko Zarata III), Heavy Jaia eta Sevillarren Jaialdia.

Larratxoko Liburutegiaren birmoldaketari esker, zerbitzuak haurrei ez ezik gainerakoei ere zabaltzeko aukera izan da: hemeroteca, mailegua (cd-ak, cd-rom-ak, literatura...), informazioa eta erreferentzia, material interesgarriak (hizkuntzak, gurasoentzako liburuak, informatika eta abar).

Azkenik, elkarteekin mantentzen den lankidetzak eta horiekin batera antolatzen diren jarduerak garrantzia handia dute oraindik ere Kultur Etxeko eguneroko bizitzan: Emakumearen Astea, Solidaritatearen Jaia, Miajadartarren Topaketa eta dantza- edo historia-ikastaroak dira horren adibide.



Ernest Lluch Kultur Etxea

(Amara)



JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	21	2.613
Zinema	2	1.030
Bideoa	2	114
Musika	14	1.475
Hitzaldiak	8	302
Ikastaroak eta tailerrak	92	1.130
Erakusketak	13	2.334
Elkarleen bilerak eta jarduerak	646	12.594
Alokairuak eta beste	90	2.421
Liburutegiko jarduerak	48	937
GUZTIRA	936	24.950

ZERBITZUAK

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	164.738
Haurtxoko	4.996
Gazteleku	7.503
Plus 55	1.778
Ikasteko gela	2.332
KZgunea	22.533
GUZTIRA	203.880

Ernest Lluch Kultur Etxeak bere heldutasun maila lortu du aurrean, kultur erreferente eta topagune gisa, bai hiritarrentzat eta bai Amarako zein hiriko beste tokietako elkarrekin ere.

Aurtengo programazioaren artean, "Un Tal Eusebi", "En el Umbral del Cambio", "Hitzak egin gaitu ezer" edo "En pie de foto" erakusketak aipa daitezke, baita Literaktum Letren eta Lengoaien Festaren lehen edizioa ere. Erakusleihoa, berriz, formatu txikiko eta diziplina arteko (olerkia, musika, antzerkia) ikuskizun esperimentalen programa da, eta sendotzea lortu du, aurreko urtean abian jarri ondoren.

Aipatzekoa da, halaber, auzoko hainbat elkarterekin eginiko lana ere eta, batez ere, bere bizitasun eta egite onagatik, ARES elkarteko bideo-forumarekin ezarritako asteroko zita.

Lehen aldiz, 2004. urtean berriz inauguratutako Zorroagako elizan, Kultur Etxeak antolatutako Eliz Musikaren Zikloko eta Abesbatzen Asteko kontzertuak entzun ahal izan dira.

Kultur Etxeko zerbitzuei (liburutegia, KZgunea, Haurtxoko, Gazteleku, Plus 55 eta ikasteko gelak) eta hiritarrei eskaintzen dizkiegun ikastaroei esker, Kultur Etxe honek bizi handia du egunegun, eta adin guztietako jendea hurbiltzen da bertara.





JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	26	3.792
Zinema	3	1.050
Bideoa	43	2.728
Musika	33	6.170
Hitzaldiak	50	2.332
Ikastaroak eta tailerrak	119	1.614
Erakusketak	20	27.925
Elkarteen bilerak eta jarduerak	80	2.814
Alokairuak eta beste	7	653
Liburutegiko jarduerak	208	1.634
GUZTIRA	589	50.712

ZERBITZUAK

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	164.354
Hautxoko	9.545
Gazteleku	12.159
Plus 55	2.089
KZgunea	24.428
GUZTIRA	212.575




2004. urtean zabaldu zituen ateak berriro, eta abiadura etengabean egin du aurrera aurtengoan. Kultur Etxearen jardun handia da horren adierazgarri.

Hautxoko, Gazteleku eta Plus 55 zerbitzu berriek oso harrera ona izan dute, eta etorkizun oparoa dute.

Ikastaroak Kultur Etxe honen espezialitatean oinarritu dira, Arte Plastikoetan. Honela, ikasgai berriak eman dira: "Erromanikoa Euskal Herrian", "Kolorea bizi", "Pinturaren lantegi irekia" eta abar. Literaturak funtsezko tokia izan du aurten ere, eta 200 pertsona baino gehiago hurbildu da sormen-tailerretara eta hileko literatur zitara.

Erakusketei dagokienez, Arte Plastikoen topagune garrantzitsua bilakatu da Okendo hirian. Aurten, hainbat erakusketa eskaini du, eta aldi berean antolaturiko hitzaldien, ibilaldien, bibliografiaren, tailerren eta abarren programazio batek aberastu ditu aipaturikoak. Horretan guztian, parte-hartze handia eskaini dute Kultur Etxeko zerbitzuek.

Erakusketen artean azpimarratzekoa da, jakina, "Okendotarrak, Donostiako leinu bat" erakusketa; ekoizpen propioko liburu eta erakusketa hau antzina etxe horretan bizi ziren okendotarrei buruzkoa da. Etxe horretan, gainera, gure ondare historikoaren zati bat berreskuratut ahal izan da.



Lugaritz Kultur Etxea



JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	68	8.322
Zinema	77	14.143
Bideoa	4	315
Musika	12	1.786
Hitzaldiak	13	334
Ikastaroak eta tailerrak	47	491
Erakusketak	8	3.420
Lugaritzeko elkarteen bilerak eta jarduerak	162	2.357
Merkatuko elkarteen bilerak eta jarduerak	1216	34.306
Merkatu eguna	0	0
Alokairuak eta beste	7	970
Liburutegiko jarduerak	31	919
GUZTIRA	1647	67.705

ZERBITZUAK	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	41.414
Antiguoko Merkatua Gazte Dinamizatzaile Zerbitzua	2.443
Antiguoko Merkatua Haur Dinamizatzaile Zerbitzua	670
Plus 55	864
KZgunea	6.298
GUZTIRA	51.689



Aurtengo une gogoangarri eta maitagarrienetako bat, Lugaritz Kultur Etxeko gune eszenikoari Imanol Larzabal Areto izena jarzea izan da, abeslari ezagunaren omenez.

Antzerkiari dagokion programazioan honakoak dira azpimarratzekoak: Nancho Novoren interpretazioa "Defendiendo al cavernícola" antzezlanean, eta Tentación & Serantes Aretoa konpainiaren "Ay Manolo" antzezlanea. Musikari dagokionez, berriz, Benito Lertxundik Antiguako pilotalekuan emaniko konzertu gogoangarria da aipatzekoa, bertaratu zirenek ahazten zail izango dutena.

Auzoan azken aldian areto-eskaintza berria aurki badoiteke ere, zinematografia-programazioak, batez ere haurrei dagokienez, batezbesteko garrantzitsua mantentzen du.

Liburuaren munduari loturik, hainbat jarduera gauzatu da Kixoteren eta Hans Christian Andersen-en mendeurrenak ospatzeko. Jarduera hauek onarpen handia izan dute ikasleen artean.

Haurrak dinamizatzaile zerbitzuaren programazioak izan duen harrera onaren ondorioz, gehitu egin dira saioak; hilean lau ematen dira. Bestalde, Plus 55 zerbitzuak, urtarrean inauguratutakoak, harrera ona izan du auzoan. Jardueren artean honakoak nabarmen dira: "Ibilaldiak Donostian", Igandeak dantza" eta onarpen handia izan duen "Gimnasia hondartzan".

Azken batean, jarduera handiko urte honek programa eta zerbitzu berriak izan ditu bereizgarri.



Intxaurrondo Berri Kultur Etxea

JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	11	1.458
Dantza	1	150
Zinema	2	450
Musika	3	185
Hitzaldiak	3	195
Ikastaroak eta tailerrak	33	662
Erakusketak	2	462
Elkarteen bilerak eta jarduerak	35	227
Alokairuak eta beste	0	0
Liburutegiko jarduerak	50	340
GUZTIRA	140	4.129

ZERBITZUAK

	usuarios
Liburutegi bisitariak	57.984

Ikastaro-eskaintza ugaritu eta zabaltzek onarpen handia izan du. Diziplina berriak eskaini dira, esate baterako, "Tai-chi", "Erreflexoterapia", "Kapoeira", "Erritmoa eta Musika" edo "Senda belarrak", eta interesa areagotu dute. Izan ere, gehitu egin da matrikulazioa. Auzoko elkarteekin batera antolatutako jarduerak ere oso arrakastatsuak izan dira, esaterako: "Emakumearen Astea" edo "Bidaiarien Astea".

Haur eta gazteen mahai bat sortu da, urtean zehar aisialdirako eta astialdirako jarduerak eskaintzeko. Mahai horretan, kaleko hezitzaileekin eta auzoko astialdirako elkarteekin hartuko dugu parte. Lehendabiziko proposamenek oso harrera ona izan dute.

Haurren antzerki-programazioak eta kaleko jarduerak auzoko bizilagun asko erakartzen dute oraindik ere.

Liburutegiari dagokionez, erabiltzaileen zein maileguren kopuruak baieztaatu egiten dituzte hazkunde-aurreikuspenak, eta aldi berean, zerbitzu honi Kultur Etxeko dinamizazio-elementu nagusiaren bermea ematen diote.



Arte Eszenikoak eta Musika



	LANAK	FUNTZIOAK	IKUSLEAK
ANTZERKIA			
Antzerki feria	46	65	26.232
Neguko denboraldia			
Antzerkia	38	109	16.700
Haur Antzerkia	54	63	10.277
Udako denboraldia			
Poltsiko Antzerkia	11	85	36.403
Amateur Antzerkia	26	26	1.873
Kale Antzerkia	41	41	4.527
Beldurrezko Antzerkia kalean	38	38	10.176
GGEEen Areto Antzerkia	3	4	5.162
Eskoletako antzerki-emanaldiak	1	1	326
Beste	2	2	347
GUZTIRA	292	466	115.278
LIRIKA	20	23	6.860
MUSIKA	88	88	18.472
DANTZA	57	61	12.969
GUZTIRA	457	638	153.579

2005. urteko arte eszenikoaren eta musikaren programazioak une zoragarriak eskaini dizkigu antzerkian, musikan eta dantzan. Ohiko antzerki-proposamenen eta proposamen garaikideagoen arteko oreka zail hori gaingitu eta konbinazio bikaina eskaintzea lortu dugu; haur, gazte zein helduentzako antzerkia; euskal antzerkiaren eta beste latitudeetako antzerkiaren arteko konbinazioa. Euskara programazioan sartzear arduratu gara, Euskararen Udal Patronatuaren lankidetzarekin, baita dantza garaikidea gure eszenategietan agertzeaz ere. Hona hemen hitz hauek argitzeko hainbat adibide; Ur-en "La Tempesta", Corsario-ren "Celama" edo "Au Revoir Triunfadoreak" dira antzerki garaikidearen proposamenen adibiderik garbienak. Arrakasta handikoak izan dira, halaber, honakoak: "Gorda", Tete Delgado eta Luis Merlorekin, Glu Glu-ren "Cocidito Madrileño" edo "Método Grönholm", Carlos Hipólitorekin, besteren artean. Euskara hutsean eskainiriko ekoizpenen artean Theatre des Chimères eta Pok Produzioak-en "Kaukasiar klerazko borobila" da aipatzekoa, eszenaratzean erabiltzen duen ausardiagatik eta Brecht-en testu enblematiko hau bide onera eramateko agertu duen kalitateagatik. Dantzari dagokionez, Lituaniako Balleta da aipatzekoa, Igor Yebrarekin, baita Ballet Biarritz Juniorren agerpen berritzailea ere, balore berrien babesle gisa. Urteko euskal uztaren artean honakoak aipatuko ditugu, inor ahazteko asmorik gabe: Hikaren "Zeta", Vaivén-en "Nasdrovia Chejov", Kukai-Tanttakaren "OTEhitZari biraka" edo urteari amaiera emanetz, Txalo Producciones-en "El hombre de los dados".

Arte eszenikoetan, Cervantes urtea ere ospatu dugu. Lehengo urtean ere ospatu genuen L'OM-Imprebis konpainiakoen "Kixote" ikuskizunarekin, eta aurtengoan, jarraipena eman diogu ospakizunari. Batetik, Italiako konpainiarik enblematikoenetako bat den Teatro Nucleo de Ferrara-ren eskutik "Kixote" kale-proposamena ikusi ahal izan dugu. Bestetik, berriz, Lituaniako Balleta izan da ikusgai, Igor Yebrarekin eta honen "Kixote" bereziarekin.

Hainbat autore gozatu ahal izan ditugu; hala nola Cervantes,

Shakespeare, Chejov, Brecht, David Hare, Jordi Carcerán edo Alesandro Baricco. Autore hauen obrak, gainera, honako zuzendari garrantzitsuen eskuetan izan dira: Fernando Bernués, Helena Pimenta, Tamzin Townsend, Fernando Urdiales, Ana Diosdado, Ricardo Irieta edo José Carlos Plaza. Eta, azkenik, honakoak izan dira protagonistak: Gabino Diego, Amparo Larrañaga, Lola Herrera, Blanca Marsillach, Joaquín Kremel, Luis Merlo, Tete Delgado edo Nancho Novo.

Ikusleen harrerak ona izaten jarraitzen du neguko denboraldian ere, eta aurtengoa, joan den urteetako udako antzerki-denboraldirik onena izan da Antzoki Zaharrean eta Kursaal. Izan ere, ikusle-kopurua nabarmen handitu da; 36.403 ikusle izatera helduz. Haurrei zuzendutako lau programazio egonkorak ere aipatzekoak dira, hain zuzen ere, Antzoki Zaharrean, Imanol Larzabal Aretoan, Gazteszena eta Altzan eskaintzen direnak. Egia Kultur Etxeko Gazteszena Aretoak datu bikainak ditu dantza garaikidearen programazioari dagokionez, ikusle-kopuruaren gorakada barne, eta gauza bera esan daiteke musikaren arloan ere. Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal Aretoak, berriz, formatu txikia eta haur-antzerkia jorratzen ditu, eta oso batezbesteko interesgarria lortu du ikusleei dagokionez bi espezialitateetan.

Denboraldi hau ere bikaina izan da hiriko antzerkiari, dantzari eta musikari dagokionez. Donostia Kulturatik, izan ere, lanerako eta ilusioari eusteko ahalegin handia egin dugu, eta eskerrak eman nahi dizkie ikusleei erantzun positiboa eman dutelako.



Antzoki Zaharra



	Lanak	Funtzioak	Ikusleak
Antzerki Feria	4	4	1.646
GUZTIRA	4	4	1.646

Neguko denboraldia:

Antzerkia	16	56	11.152
Dantza	1	4	1.550
Haur Antzerkia	5	13	2.882
Amateur Antzerkia	5	5	868
Beldurrezko Antzerkia Kanean	3	4	5.162
Giza Eskubideen Areto Antzerkia	1	1	326
Poltsiko Antzerkia (zentroa)	3	3	390
Eskoletako antzerki-emanaldiak	2	2	347
Lirika	3	6	2.572
Nosferatu	32	50	3.553
Ziklo eta saio bereziak	3	2	2.324
Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea	8	51	10.788
Zinema eta Giza Eskubideak	8	26	4.749
Surfilm Festibal	3	13	3.270
Eskoletako antzerki-emanaldiak	8	26	7.837
Musika	7	7	1.818
Beste	8	8	1.193
GUZTIRA	116	277	60.781

Udako denboraldia:

Antzerkia	10	80	30.998
GUZTIRA	10	80	30.998

GUZTIRA	130	359	93.425
----------------	------------	------------	---------------

Alokairuak	13
Lankidetzak	10
Entseguak	6
EGUNAK GUZTIRA	29

2005. urtean ere, udako denboraldia izan da Antzoki Zaharreko protagonista. Gorako joera finkatu egin da, 30.998 ikusle hurbildu baita bertara. Honen arabera, joan den urteko denboraldian baino 5.858 ikusle gehiago izan da. Hortaz, %21eko hazkundea gertatu da urte batetik bestera. Eraitza hauek oso garrantzitsuak dira, eta udako antzerki-plazarik garrantzitsuenetako bat bilakatzen dute Donostia, Espoia mailan. Aipatzekoa da, halaber, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, beste behin ere parte-hartze handia izan baitu, 10.788 ikuslerekin. Neguko denboraldiko parte-hartzea ere oso interesgarria izan da; 12.702 pertsona hurbildu baitira udazken-neguko hilabeteetan zehar. Antzerkiak donostiarrengan pizten duen interesaren adierazgarri garbia da aipaturikoa.

Ikusle helduei zuzenduriko euskarazko antzezlanen programazioa finkatu egin da, baita aurten Donostiako eszenatokietan barrena ibili diren ikusle helduentzat eginiko euskarazko ikuskizunik onenaren « Donostia Saria » ere. Hau



guztia, Euskararen Udal Patronatuaren eta Donostia Kulturaren arteko lankidetzaren fruitu da. Edizio honetan, Antzerkiola Imaginarioa – Fábrica de Teatro Imaginario konpainiaren “Yuri Sam” ikuskizun garaikideak irabazi du saria.

Zinema-programazioari dagokionez, ezinbestean aipatu beharrekoa da Fantasiako eta Beldurrezko XVI. Asteak lortu duen arrakasta handia. Izan ere, 2.600 ikusle baino gehiagoko gorakada izan du aurtengoan. Surfilm Festibal eta Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdia ere finkatu egin dira, eta biak batuta, 2.000 ikusle baino gehiagoko gorakada izan dute.

Antzoki Zaharrak urtean zehar 130 jarduera antolatatu dituela kontuan hartuz, esan daiteke ekipamendu honen okupazio eta errentagarritasun maila oso onargarria dela. 359 funtzio edo ekitaldi izan dira guztira, eta 93.078 pertsonak hartu du parte horietan.

Antzerki Feria



Donostiako Antzerki Feria arte eszenikoen profesionalentzako erreferente garbia bilakatu da beste behin ere Estatu mailan, eta bere harremanak finkatzen jarraitzen du Latinoamerikako eta Europako merkatuarekin. Kultur gertakari honi Estatu mailako antzerki-zitarik garrantzitsuenetako bat dela irizten zaio. Gainera, zita hau Donostiako udako kultur gertakarien zirkuituan sartzen da, Jazzaldiarekin, Musika Hamabostaldiarekin eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin batera.

Joan den urtean Feria bertan behera gelditu bazen ere, oztopo hori gainditzea lortu du aurten. Feriari ukitu berria eman zaio berrikuntzen bidez, horien artean aipatzekoak dira “merkatu profesionala”, Victoria Eugenia Antzokia Saria, jarduera paraleloak sendotu izana, profesionalen Topagunea Kursaalaren ezarri izana eta Feriarako gunek berriak birgaitu izana, adibidez Trinitate plaza eta abar.

Zalantzarik gabe, balantzea positiboa izan da maila guztietan. Feria hau Estatu mailako antzerki-zitarik garrantzitsuenetako bat bilakatzeko bideari jarraipena eman zaio. Aurtengoan oso urrats garrantzitsuak eman dira:

- Merkatu profesional bat sortzea
- Festival O-ri buruzko dossier baten argitalpena
- Victoria Eugenia Saria sortzea
- Trinitate plaza eszenatoki berri bilakatzea

Hona hemen azpimarratu beharreko beste hainbat alderdi:

- 32 ikuskizun programatu dira 36 funtziotan.
- Horietatik 3, erabateko estreinaldiak ziren, 6 lehen aldiz estreinatzen ziren Euskadin, eta 3 lehen aldiz estreinatzen ziren Espainian.
- 26.200 pertsona inguruk gozatu ditu antolatutako proposamenak. Aretoan 10.497 ikusle zenbatu dira, kalean 9.337 ikusle, jarduera paraleloetan parte hartu dutenak 5.698 izan dira eta Merkatuan izan direnak 1.600.
- Guztira, 700 profesional etorri da Donostiara, eta horietatik 171 programatzaileak dira.
- “Sarrerak agortuta” txartela 5 funtziotan jarri behar izan da.
- Kaleko ikuskizunek onarpen handia izan dute, eta ia esan daiteke aparteko Jaialdi bat osatu dutela Feriaren baitan.

Guztira, hogeita sei mila pertsonak baino gehiagok gozatu ditu programaturiko proposamenak. Guneen okupazio maila oso altua izan da, eta erabat bete dira ondoko ikuskizunetan:

- “Como agua para chocolate” Ados Teatroa
- “iNasdrovia Chejov!” Vaivén
- “El invierno bajo la mesa” Centro Dramático Nacional
- “OTEHITZari biraka” Kukai/Tantanka
- “5mujeres.com” Globomedia

Eguraldia lagun izan da, eta haur-emanaldi bat bakarrik utzi behar izan da bertan behera arazo teknikoaren eraginez.



Zinema Argitalpenak

Aurten, Nosferatu aldizkariak hiru ale atera ditugu: 48. eta 49. aleak frantses zinemari eskainiak ("Cine francés 1945-1959"), eta 50.ena Kixoteren ingurukoa ("El Quijote en el cine").

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearren esparruan, dagokion filmen katalogoaz gain, honakoak ere argitaratu ditugu: "Cine español fantástico y de terror: 1984-2004" liburua, "Las joyas de la familia" deritzan Pedro Usabiagaren argazki-katalogoa, eta "2000 Maniacos" eta "Flash-Back" fanzineak.



Zinema eta Bideoa

PROGRAMAZIO ZINEMATOGRAFIKOAREN LABURPEN OROKORRA

	Egunak	Filmak	Saioak	Ikuskizunak
Nosferatu-programazioa	32	50	32	3.553
Beldurrezko Zinemaren Astea	8	83	56	15.715
Giza Eskubideen Topaketak	8	26	15	4.749
Surfilm Festibal	4	14	10	3.470
Ziklo eta saio bereziak	173	191	202	26.711
GUZTIRA	225	364	315	54.198

ZINEMARI ETA BIDEOARI LOTURIKO JARDUERAK

Beste behin ere, hainbat eta hainbat zinemagile, kritikari, historialari zinematografiko eta arte-munduko pertsonaren bisita jaso dugu. Besteren artean, honakoak dira azpimarratzekoak: Arthur Suydam, Dana Brown, Pete Travis, Michael Gallagher, Sergio Stivaletti, Maru Valdivielso, Jaime Balaguerò, Cristina Piaget, Robert Englund, Koldo Serra, Virginie Ledoyen edo Santiago Segura.

Azken urteetan bezalaxe, azpimarratzekoa da Donostiako auzoetan kanpo-proiektzioak eskaintzen direla eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dela, bai publikoari dagokionez eta bai kritikari dagokionez ere. Bestalde, Larrotxene Kultur Etxeko espezializazio bideografikorako proiektua finkatu egin da (bere tailer eta koprodukzio bideografikoekin, "Berriketari" programarekin – azken honek zinemagile gazteen eta ikusle donostiarren arteko topaketa ahalbidetzen du-, zinema dokumentalari eskainitako ikastaroekin, "Kameraren atzetik" programarekin – haur eta gazteei zuzendua- eta abar). Beste arrakastetako bat, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera koprodukturiko Zinema eta Giza Eskubideen III. Topaketak izan dira.



Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XVI. Astea



Urriaren 29tik azaroaren 5era Aste honen hamaseigarren edizioa ospatu da. 74 film eman dira, eta 49.745 ikuslek gozatu ahal izan du Aste honetako jardueraren bat, dela emanaldi zinematografikoren bat, edota dela jarduera paralelaren bat (kaleko antzerkia, erakusketak, fanzineak, kontzertuak, zinema-eta komiki-topaketak eta abar).

8 film luze programatu dira euskaraz (7 helduentzat eta 1 haurrentzat – azken hau Kursaleko kubo handian, Kutxak babestu izanari esker) eta 15 film labur. Guztira, 1.489 ikusle izan dira.

Filmen katalogoaz gain, honakoak ere argitaratu dira : “Cine español fantástico y de terror: 1984-2004 » liburua, “Las joyas de la familia” Pedro Usabiagaren argazki-katalogoa eta “2000 Maníacos” eta “Flash-Back” fanzineak.


200 gonbidatuk baino gehiagok bisitatu dute gure hiria Aste honetan zehar. Fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren munduko argitalpenik garrantzitsuenetako batzuen ordezkariak bertaratu direla ere nabarmendu behar da. Argitalpen horiek *Mad Movies* (Frantzia), *L’Ecran Fantastique* (Frantzia), *Nocturno* (Italia), *Dark Side* (Britainia Handia), *Toxic* (Frantzia), *Fangoria* (AEB) edo *Shocking News* (Holanda) dira, besteren artean.



Aldi Baterako Erakusketak



	San Telmo Museoa		Kultur Etxeak	
	Kop.	bitak	nº.	bitak
Artea:				
Pintura	2	19.947	11	14.354
Artisautza	0	0	2	812
Marrazketa	0	0	6	2.596
Argazkigintza	1	4.800	13	13.693
Tematikoak	4	33.525	29	26.459
Beste	1	3.429	10	3.143
GUZTIRA	8	61.701	69	61.057



Aldi baterako erakusketetako bisitariak guztira: 122.758


Jarduerak eta argitalpenak:

	San Telmo Museoa	Kultur Etxeak	GUZTIRA
Jarduerak:	235	49	284
Argitalpenak:	1	8	9
Bertaratuak guztira:	3.785	1.665	5.450



Aurreko urteetan bezala, Donostia Kulturak aldi baterako erakusketa-eskaintza zabala mantendu du. Erakusketa horiek San Telmo Museoko erakusketa-aretoetan eta kultur etxeetan jarri dira ikusgai, batez ere, Okendo Kultur Etxean, gai honetan espezializaturikoa baita.

2005. urtean, San Telmo Museoa "La Caixa" Fundazioaren "Europa fue camino. La peregrinación a Santiago en la Edad Media" erakusketaren kolaboratzaile izan da. Erakusketa Saguesko zabalgunean jarri zen ikusgai.





- Bildumak:

Museoaren inbentarioa:

	objektuak
Arkeologia	619
Arte Ederrak	5.504
Etnografia	4.485
Argazkigintza	7.325
Historia	1.552
GUZTIRA	19.485

Bilduman Arkeologiako eta Historiako pieza bana sartu da, baita Arte Ederretako 7 artelan, bi kartel-bilduma eta Andoaingo inprimategiko pieza etnografikoak ere.

66 pieza zaharberri dira.

111 pieza maileguan utzi zaizkie 13 erakunderi erakusgai jar ditzaten.

- Jarduerak:

- Aldi baterako erakusketak:
 - "Janzkiak paperean", urtarrilaren 26tik otsailaren 27ra
 - "Sagues hiri ikur berri bat", martxoaren 18tik ekainaren 5era
 - "Donostiako hirigintza aztergai", martxoaren 22tik maiatzaren 29ra (eliza)
 - "Eduardo Chillida Belzunce", ekainaren 30etik irailaren 4ra
 - "Lise Sarfati", irailaren 15etik urriaren 16ra (eliza)
 - "8 artista paper gainean" urriaren 7tik azaroaren 13ra
 - "San Telmorekin elkarrizketan", azaroaren 8tik 2006ko maiatzaren 31ra (eliza)
 - "Adierazpen eta sentimena": arte garaikideko bilduma, Coca Cola Fundazioa, azaroaren 25etik 2006ko urtarrilaren 29ra.


- 23 hitzaldi eta mahai-inguru, 15 STMLEarekin lankidetzan
- 131 bisita gidatu
- 227 bisita-tailer
- 17 jarduera, hala nola kontzertuak, proiektzioak...

- Lankidetzak hainbat erakunderekin:

Eusko Ikaskuntza, Ordoñez Falcón Argazki Fundazioa, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Txokolarte, Musika Hamabostaldia...

Joan den urtean proiektu museologikoa onartu ondoren ("San Telmo Memoria y Territorio"), ekitaldi honetako daturik azpimarragarriena arkitektura-proiektua abian jarri izana da. Horretarako, Nieto eta Sobejano arkitekto-taldea aukeratu da, ideien lehiaketan **Museoa Berrizatzeko eta Zabaltzeko Oinarritzko Proiektua** idatzi duten hogeita bederatzita taldeen artean.

Horrekin batera, Museoan bi esparru landu ditugu funtsean: barne-esparruan, inbentarioa eta piezen berrikuspina landu ditu. Izan ere, lanen eraginez bilduma mugitu egin beharko dela aurreikusten da, eta horretarako, ezinbesteko neurria da aldeztasunetik Inbentarioa egitea. Bestalde, kanpo-esparruan, programazioa eta jardueren hedapena landu ditu, balizko bisitariek Museoko bildumak eta erakusketak ezagutu ditzaten; ikasle-taldeentzako beharpenak, familia-tailerrak, mahai-inguruak eta hitzaldiak.





hemen gaude estamos aquí

A. Casares - Tomasene

Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 • casares@donostia.org

B. Altza

Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 • casares@donostia.org

C. Ernest Lluch

Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943481919 • amara@donostia.org

D. Larrotxene

Intxaurrenondokalea, 57 (Intxaurrenondo)
Tel.: 943 291954 • larrotxene@donostia.org

E. Intxaurrenondo Berri

Gaztela kalea, 2
Tel.: 943 279343 • larrotxene@donostia.org

F. Loiola

Aralar kalea, 17
Tel.: 943 454605 • loiola@donostia.org

G. Lugaritz

Heriz pasealekua, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 • lugaritz@donostia.org

H. Okendo

Nafarroa hiribidea, 7 (Gros)
Tel.: 943 290672 • okendo@donostia.org

I. Egia


Baztan, 21
Tel.: 943 291514 • egia@donostia.org

J. Liburutegi Nagusia Biblioteca Central

Alderdi Eder, z/g
Tel.: 943 481488
liburutegi_alderdieder@donostia.org

K. DONOSTIA KULTURA

Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



KULTUR
ETXEAK
CENTROS
CULTURALES

www.donostiakultura.com